

169 positibo berri
9799 positibo guztira* UCln EAEn

1.875 hildako EAEn

425 positibo berri
15.880 positibo guztira UCln Nafarroan

*HERNANIN 327 (+1), ASTIGARRAGAN 57 (+3)

Pandemia egoeran egonda ere, kulturari ateak zabaltzen jarraituko du Hernanik

Urtaro aldaketarekin batera, udazken kultur agenda berria argitara atera da, literatura, musika, antzerki eta makina bat emanaldiz josia. Biterin izango dira, «horretarako hainbat egokitzapen egin dira, guztion segurtasuna eta babesa bermatze aldera».

HERNANI KULTUR AGENDA

Bizi dugun osasun alarma dela eta, udaberriko hainbat kultur ekintza atzean geratu ziren, hala ere, «kulturaren aldeko apustu irmoa» egin du Hernaniko Udalak, eta martxan da Udazkeneko agenda kulturala, makina bat ekintza, dantza eta ikuskizunekin.

Biteri kultur etxean izango dira emanaldiak, izan ere, hainbat egokitzapen egin dituzte, herritarren segurtasuna eta babesa bermatzeko. «Ene ba! antzerkia, oso ondo joan zen, herritarrek zentzuz jokatu zuten, eta neurriak errespetatu ziren». Emaizta baikor honek, bultzada bat eman dio Biteriri, eta ateak ireki ditu, udazken honetan kultur emanaldiak barruan ikusi eta gozatzeko aukera emanez hernaniarrei.

Sarrerak eta gonbidapenak

Emanaldietarako sarrerak zein gonbidapenak alde aurretik hartu beharko dira, jarduera baikoitzak zehaztutako epean, «segurtasun neurriak direla eta, aforoa kontrolatzeko». Sarrera ordaindu behar den kasuetan, txartelaren bidez ordaintzea onartuko da soilik.

Biterira sartzeko eta irteteko, aipatu moduan hainbat neurri erabiliko dira, hala nola, areto-ara sartu zein irteterako garaietan, gel hidroalkoholikoarekin garbitu behar dira eskuak, ilarak elkarren arteko distantziak errespetatu behar dira, eta irteera kultur etxeko alboko ateatatik egingo da, «lasai, banaka, pilaketarik sortu gabe».

Aretoaren edukiera

Areto nagusiaren edukiera, %60era murriztu da, beraz, «soilik zenbakia duten besaulkietan eser daiteke, blokeatutako eserlekuak ezin dira erabili». Horrez gain, sarrera-irteeretan zein emanaldian zehar, «6 urtetik gorako pertsona guztiak maskarilla jarrita izan beharko dute, derrigorrez». Gainera, Biteri kultur etxeko langileak prest egongo dira uneoro, argibideak eta laguntza emateko.

Udazkenerako, emanaldi mordoak

Hainbat emanaldi eskaintzen dira aurtengo Udazken kulturalean. Iraila ezin hobe amaitzeko, Hitz-Andana eskainiko da, hiru emanaldiz osatuta. Lehena, hilaren 30ean izango da, arratsaldeko 20:00etan, *Esnatu naiz* Kabareta, Andoni Mutiloak antzeztua. Antzerkia, dantza eta musika nahastean dituen *showa* izango da, «identitatea, giza harremanak eta sexualitatea ditu hizpide». Gainera, *Esnatu naiz* Kabaret emanaldiaren bertsiu luzea eskainiko da lehen aldiz Hernanin. Hitz-Andanako beste bi emanaldiak urriaren 1 eta 2an izango dira. *Errimak bi oinetan* eskainiko da arratsaldeko 20:00etan, urriaren 1ean, eta *Nola gorde errautsak kolkoan ez-tulik egin gabe*, Miren Agur Meaberen eskutik, urriaren 2an. **K**

«Hainbat egokitzapen egin ditugu Biterin, guztion segurtasuna bermatzeko»



Udazkeneko kultur agenda aurkeztu zuten atzo, Gotzon Huegun hernaniararen erakusketan.

Kultur agenda

IRAILA

30 Hitz-Andana. Esnatu naiz. Andoni Mutiloa, 20:00

URRIA

1 Hitz-Andana. Erriman bi oinetan. Haatik dantza konpainia, 20:00

2 Hitz-Andana. Nola gorde errautsak kolkoan ez-tulik egin gabe. Miren Agur Meabe, 20:00

13 Emakumeen euskal literatura: atertu arte itxaron. Katixa Agirre. Kattalin Miner, 19:00

14 Cuando sale la reclusa. Fred Vargas. Amaia Garcia, 19:30

20 Gu orduko hauek. Garazi Arrula. Ane Mayoz, 19:00.

31 LOO. Haur antzerkia. Ponten pie, 11:00/12:30

AZAROA

10 Fadoak entzuten zituen gizona. Antzerkia. Xake produkzioak, 20:00

11 Ni munduko txarrena. Antzerkia. Vaivén producciones, 20:00

12 Quitamiedos. Antzerkia. Kullunka Teoatro, 20:00

16 Emakumeen euskal literatura: Hezurren erretura. Miren Agur Meabe. Kattalin Miner, 19:00

17 Zure hatzaren ez galtzeko. Itxaro Borda. Añe Mayoz, 19:00

18 Las llamadas perdidas. Manuel Rivas. Amaia Garcia, 19:30

21 Gizon zorionsuaren alkan-dora. Haur antzerkia. Paraiso Antzerkia, 12:00

26 Idoia Asumendi + Beste urta-roak. Katapulta Zirkuitua, 19:30

27 Saio Linbikoa. Sara Zozaya, 20:00

ABENDUA

9 Emakumeen euskal literatura: Umeek gezurra esaten dutenetik. Uxue Apaolaza. Kattalin Miner, 19:00

12 O! Haur antzerkia. Elirale konpainia, 11:00/12:30

15 Lehertu da festa. Eneko Aizpuru. Ane Mayoz, 19:00

16 Apegos Ferozes. Vivian Gornick. Amaia Garcia, 19:30

17 Loreak eta zauriak. Beñat Gaztelumendi, Xabier San Sebastian, Joserra Senperena eta Quico Pugés, 18:00

29 Hansel eta Gretel. Haur antzerkia. Borobil Antzerkia, 20:00

2020/01/4 Kotondarrak. Haur antzerkia. Anita Maravillas, 18:00

ERAKUSKETAK

Irailak 18-urriak 16 Zura. Egurrezko eskulturak. Gotzon Huegun

Urriak 19-23 Euskal jantziak. San Joan Konpartsa

Azaroak 10-24 Pintura. Txaro Peña eta Bost emakume Artean taldea

Azaroak 27-abenduak 11 Margoak. Arantxa Agirre

Abenduak 15-30 Argazkiak. Felix Etxeberria

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 943 550 489

Tripontzi
jatetxea
PINTXOAK
RAZIOAK
ENTZALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOA
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian
Koldo eta Ana
Astelehenetik ostiralera
eguerdian irekita,
larunbatetan
eguerdi eta gauean.
Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

EGURALDIA
GAUR Giro goibela eta tarteka zaparradak botako ditu, batez ere kantauri isurialdean. Ipar partean, zaparradak ugariagoak izango dira goizean eta batez ere arratsalde-gau partean eta baliteke lekuren batean ekaizak jotzea. **Min.14° / Max.22°**

BIHAR Eguraldi kaskarra; haizea, euria eta asko hoztuko du. zenbait lekutan etengabe egin dezake euria, tarteka ekaizak ere jo dezake, eta pilatutako litro kopurua esanguratsua izango da zenbait lekutan. **Min.12° / Max.16°**

ARGITARATZAILEA
DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LAGUNTZAILEAK
Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Euzko Legegaria
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Abandua
ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

'OndarHernani' aurkeztuko dute gaur arratsaldean, Biterin

'OndarHernani', ekimena jarriko dute martxan, Hernaniko Ondarea ikustarazteko helburuarekin.

HERNANI ONDARHERNANI

Ondarea eta Hezkuntza da 2020ko Ondarearen Europako Jardunaldien programaren izenburua. Europako kontseiluen ekimena da, eta ondarea «herritarrengana hurbiltzea» du helburu. Ondarea osatzen duten elementuen gaineko sentsibilizazio eta kontserbazioa sustatzea, hain zuzen. Jakinarazi dute edizio honetan antolatutako jarduerak transmisioaren zereginetan jarri nahi dutela arreta, «beti ondarea kontserbatzeari eta gozatzeari begira».

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak koordinatzen du programa hau, eta edizio honetan 70 antolatzailek baino gehiagok hartzen dute parte. Bertan ehun bat jardura eta 150 ekitaldi inguru programatzen dira lurraldean zehar, «zehazki 38

udalerrietan, iraila eta azaroa bitartean».

Jardunaldiari buruzko liburuxkak, Biterin

Jardunaldiari buruzko liburuxkak, Biterin daude eskuragai. Turismo bulegoan eta udal artxiboan, eta gipuzkoa.eus webgunean ere aurkitu daitezke.

Esan moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak sustatzen eta antolatzen du programa hau, eta Hernanik lehen aldiz hartuko du parte, bostgarren edizio honetan.

Programak, hamaika helburu
Ekimen honek Hernaniko Ondarea ikustarazteko aukera ematen du, «duela urte batzuk antolatzen ari garen egitasmoei zabalkunde haundiagoa emateko aukera ematen digu, hala nola, Hernaniko Ondarea, ma-

teriala edota materiagabea, berreskuratu, kontserbatu eta ezagutzera ematea herritarrei eta bisitariei.

Aurkezpena gaur Biterin, 19:30etan

Hernaniko Ondarea ezagutzen hasteko hainbat proposamen egingo dira. Lehen gaur eskainiko da, *Ondarea Hernani* webgunearen aurkezpen hitzaldia-rekin. Arratsaldeko 19:30etan izango da, Biterin.

Bigarren proposamena, San Joan Bataiatzailea parroki-elizan bisita komentatua egitea da. Urriaren 3an, eguerdiko 12:00etan hasita. Eta azkenik, alde zaharrean bisita komentatua, urriaren 17an. Euskarazko bisita goizeko 10:00etan egingo da, eta gaztelaniazkoa 12:00etan.

Ekintza hauetara bertaratzeko interesa dutenek, aurrez eman behar dute izena. Lehengo bi ekintzen izen ematea gaur amaitzen da, eta hirugarrena urriaren 3an. **K**

Hizketaldia gaur Esna Hernanik, Atsegindegin

Hizketaldia antolatu du gaurko Esna Hernani taldeak, eta bihar ere, 'Ezagutu zure eskubideak' gaiari buruz jardungo dute.

HERNANI ESNA HERNANI

Hainbat hizketaldi antolatu ditu Esna Hernanik, bat gaur izanik. «Elkar topo egitea, nola gauden, zer sentitzen dugun eta une honetan bola biziz garen partekatze».

Eskaerak aurkezteko azken eguna, gaur

HERNANI LAN POLTSA

Kulturarteko Plaza Feministako koordinatzaile lan-poltsa osatzeko hautaketa prozesua ireki zen abuztu bukaeran, eta gaur da eskaerak aurkezteko azken eguna. Plaza mota administrazio bereziko eskalako, azpieskala teknikokoa, edo erdi mailako teknikarien klasekoa da.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

Aurten ere bat egin du Astigarragak, Euskaraldiarekin

Astigarragako 40 entitate eta elkarte eman dute izena, Euskaraldian.

ASTIGARRAGA EUSKARALDIA

Aurten ere, Euskaraldiko II edizioa izango da, eta Astigarragak berriro bat egin du ekimenarekin. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean izango da, 15 egunez. Eta aurtengoan ere, aipatu moduan, Astigarragak bat egin du. Gainera, «Ahozki eta Belarriprest rolak jokatu dituzten gizabanakoez gain, eta berrikuntza nagusi moduan, entitateek ere Euskaraldian izena emateko aukera dute, Ariguneak sortuz». Arigune hauek, euskaraz hitz egiteko guneak izango dira. Eta entitateek, sortu eta izen emateko aukera daukate, igandera arte.

Aurten Astigarragan Euskaraldirako izena eman duten hainbat talde eta elkarte daude, honakoak, hain zuzen: AEK, Ane Optika, Artoene Harategia, Astigarraga Hertz Klinika,



Euskaraldian izen eman duten Astigarragako entitateetako hainbat ordezkari.

Astigarragako Guraso Elkarte, Astihortz Hertz Klinika, Caixa-bank, Coviran Ainhoa, Coviran Isabel, Edurne Mendizabal ileapaindegia, Eragiyok abesbatza, Ezpela belardenda. Gipuzkoako Sagardogileen elkarte, Gnomos paperdenda, Ibai Lur jatetxea, Ikatza taberna, Ipintza sagardotegia, JTM Botika, Kitadelpare txaranga, Laboral Kutxa, Leizuri artisau izozkiak, Maieko ileapaindegia, Mapfre aseguruak, Merke Azoka, More Kolore ileapaindegia, Norberto Almandoz Musika Eskola, Pas-

tain irudi zerbitzuak, Podologia Nerea Urdalleta, Sagardoetxea Museoa, Sagardun partzuergoa. Urifia Harategia, Xaguxar Astialdi taldea, Zapiain sagardotegia, Zipotza kultur elkarte, Zubitxo frutadenda, Ametsa Haur Eskola, Kiriketa Haurtzaindegia, Sagartxo Taberna, Eroski eta EH Bildu.

Oraindik garai daude parte hartu nahi duten erakunde eta elkarteak, igandean itxiko baita izen ematea. Bi bide daude: www.euskaraldia.eus atariaren bidez edo 550 991 980ra deituz. **K**

M^a LUISA MURUAMENDIARAZ ARREGUI
(Lucio Astigarragaren alarguna)
Herenegun hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.
- Goian bego -
Seme-alabak: Iñaki, Javier eta Idoia, Arantza eta Agustín; bilobak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, ZARAUZKO ANDRA MARI ZERURATZEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2020ko irailaren 24an
OHARRA: Gorputza ZARAUZKO BEILATOKIAN egongo da gaur eguerdiko 11:30ak arte.

† ENGRAXI EZEIZA IRAOLA
(Jexu Iribarren alarguna)
Atzo hil zen, 99 urte zituela.
- Goian bego -
Illobak: Iraola - Ezeiza, Roteta - Ezeiza, Usandizaga - Ezeiza eta gainerako ahaideek.
Eskertzen dugu Santa Maria Magdalenenako egoitzako langileei beraien laguntza.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATALATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2020ko irailaren 24an
OHARRA: Gorputz laguntza bere familia artean egingo da.

IRAGARKI MERKEAK

Egurrezko espalderra salgai. Neurriak 2,00 x 2,10 metro. Egoera oso onean.
Deitu: 652 707 215.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**